

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 251/2020 Erabakia, ekainaren 16koa. Onespena ematea Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntzen 2020ko ekitaldirako deialdia (Ekin Araban) onetsi zuen abenduaren 17ko Foru Gobernu Kontseiluaren 803/2019 Erabakia aldatzeari

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 803/2019 Erabakiaren bidez, onetsi zen Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntzen 2020ko ekitaldirako deialdia (Ekin Araban).

Deialdirako eskaerak aurkezteko epea 2020ko otsailaren 28an bukatu zen, alarma egoera deklaratu baino egun batzuk lehenago.

COVID-19aren pandemiak sortutako osasun eta ekonomia krisia eragin handia sortzen ari da ekintzailetzaren ekosisteman. Enpresa proiektu bat abian ipintzeak berez duen zailtasunari merkatuen haustura izugarria gehitzen zaio, haren iraupena eta intentsitateari buruzko ziurgabetasun karga batekin. Horrek, zalantzarik gabe, eragina izango du enpresa ehun osoan, eta bereziki enpresa sortu berrietan.

Likidezia beharra enpresa proiektuek bizirik irauteko faktore bat bilakatzen da, eta are gehiago finantza aldetik ahulagoak eta kalteberagoak diren jarduera berrien kasuan, kanpoko kreditua edo beste finantzaketa iturri batzuk lortzea ere zailago baitute.

Horregatik, eta orain gauden salbuespenezko egoera kontuan hartuz, beharrezkoa da Arabako Foru Aldundiak argiro eta zalantzarik gabe babesa ematea gure lurraldeko ekintzaileei. Hor-taz, planteatu da, aparteko moduan, haien proiektuei hasierako likidezia ematea, dirulaguntzen aurrerakinen bidez.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe hartu den:

ERABAKIA

Lehenengoa. Aldatzea 12. artikuluko (Ordaintzeko betebeharraren eta dirulaguntzaren ordaintzaren onarpenerako justifikazioa) laugarren apartatua. Honela dio hemendik aurrera:

“12.4. a) 55 puntu edo gehiago dituzten proiektuetarako, oro har, lehenengo ordaintzeta bat egingo da, emandako dirulaguntzaren ehuneko 30ekoa, justifikatu beharreko aurrerakin moduan, 3.1.a) eta 11. artikuluetan ezarritako betekizunak bete eta gero. Dirulaguntzaren gainerakoa, 12.2 artikuluan adierazten den dokumentazioa aurkeztu ondoren emango da. Salbuespen gisa, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak aurrerakina ordaindu aurretik fakturak aurkezteko eskatu ahal izango du, onartutako proiektuaren egoerak hala gomendatzen badu baliabide publikoak hobeto kudeatzeko.

b) Behin 12.2 artikuluan aipatutako dokumentazio guztia zuzen aurkeztuta, Arabako Foru Aldundiak gainerako dirulaguntza ordainduko du, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, eta, beraz, erakunde onuradunak diruz lagundutako gastuen ordaintzeta justifikatu beharko du.

c) Ez da ezartzen emandako funtsen berme araubiderik”

Bigarrena. Ebazpen honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoarekin. Nolanahi ere, interesdunek egokitzat jotzen duten beste edozein errekurtso erabili ahal izango dute.

Hirugarrena. Deialdiaren aldaketa hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

*Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren,
Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren diputatua*

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA